

Aberri Eguna 2026

EH Bai - EH Bildu

adierazpen bateratua

Antiinperialismotik, herrien burujabetza eta euskal nazioaren eraikuntza

Munduak bizi duen testuingurua gero eta konplexuagoa eta arrisku-
tsuagoa da. Botere handiek gerra, presioa eta baliabideen kontrola
erabiltzen dituzte beren nagusitasuna bermatzeko, eta horrek herrien
zein pertsonen askatasuna eta segurtasuna arriskuan jartzen ditu.

Autoritarismoa ez da urruneko mehatxu bat: gure inguruan hazten ari
den errealitatea da. Eta ondorio gisa militarizazioa dakar. Baina argi
esan nahi dugu: militarizazioak ez du bidezko konponbiderik erdietsi-
ko. Gerrak ez du irtenbiderik; sufrimendua baino ez du sortzen. Orain-
goan ere, Ekialde Hurbila sutan jarri dute, eskalada arduragabe batek
hondamendia zabaltzen duen bitartean.

Horregatik, gure mezua argia eta irmoa da: gerrarik ez.

Gure ikuspegia antiinperialismotik eta herrien eskubideen defen-
tsatik abiatzen da. Nazioen burujabetzari bai erraten diogu. Herrien
autodeterminazioari bai erraten diogu. Elkarrizketa, negoziazioa eta
akordioa dira gatazkak konpontzeko bideak.

Bitartean, krisi hauek ondorio larriak dakartzate: kalte ekologikoak
handiak izango dira, eta ondorio ekonomikoak jadanik ari gara paira-
tzen. Prezioek gora egiten dute, bizi-kostua handitzen da, eta berriro
ere langileen eta herri sektoreen bizkar gainera dator zama. Hori ezin
dugu onartu. Pertsonen ongizatea lehenetsi behar da. Herritarrak ba-
bestu behar dira, merkatuen interesen eta espekulatzailen gainetik.

Horrela ulertzen dugu guk Euskal Herriaren eraikuntza. Euskal nazioa
langileentzat eta herri sektoreentzat aterpe demokratiko gisa garatu
nahi dugu: euskal nortasunaren bizileku, eskubide ororen babesleku
eta herritarren beharrianen asebide. Hori da gure aberria.



ehbildu

Euskaraz biziko den Euskal Herria eraiki nahi dugu. Egunotan berriro sentitu dugu gure hizkuntzaren aldeko herri taupada sendoa, baina, aldi berean, euskara mehatxupean dagoela dakusagu egunero. Larrialdi linguistikotik indarraldira igaro behar dugu.

Mundutik datozkigun eta bertan sortzen zaizkigun erronkei erantzun beharrean gaude, eta horretarako lanabes eta baliabide politikoak behar ditugu. Euskal Herriaren oraina eta geroa erabakitzeke gaitasuna eta gure herriaren hitza errespetarazteko bermeak behar ditugu. Horregatik, beste jauzi bat egin behar dugu burujabetzaren bidean.

Frantziako zein Espainiako estatuetan lurralde ereduaren eztabaida zabalik dago, eta Euskal Herriko hiru eremu administratiboetan (Euskal Autonomia Erkidegoa, Nafarroa Garaia eta Ipar Euskal Herria) estatututakoak berritzeko beharra gero eta agerikoagoa da. Egitura politiko-instituzionala berrosatzeko ariketa egitea lehentasun bat da, lehenik eta behin bertako eragile eta indarren artean akordio sendoak eginez.

Hori da Aberri Egun honetan zabaldu nahi dugun mezuetako bat: herri gisa jokatu eta adostasun zabalak eta gehiengo politiko eta sozialak osatu behar ditugu, bai aurrean ditugun arriskuei –eskuin muturreko oldarraldiari, besteak beste– erantzuteko, bai urteotan egindako herri lanaren uzta jasotzeko.

Ezkerreko abertzale, subiranista eta independentistok eskuak zabalik ditugu elkarrekin etorkizuna irabazteko. Zentzu horretan, aipamen bat egin nahi diegu Ipar Euskal Herrian iragan berri diren herri hauteskundeei. Izan ere, etapa berri bat irekiko da orain, bai herrietan bai Euskal Hirigune Elkargoan. Ezkerreko abertzaletasunak jaso duen sustengua eta egindako aitzinamendua oso garrantzitsua izan da eta, hain zuzen, indar berritu hori Euskal Herriak dituen erronken alde jartzeko lanabes izanen da.

Bada, beraz, arrazoirik euskaldunon aberriaren alde egiteko, eta horregatik dei egiten diegu euskal herritarrei Aberri Egun honetako ekitaldietan parte hartzera. Euskal Herria Baterak joan den larunbatean Lizarran antolatutako ekitaldi bateratua izan da lehen hitzordua. Eta apirilaren 5ean, Aberri Egunean bertan, Baionan eta Iruñean elkartuko gara, nazio bat garela eta gure etorkizuna libre eta demokratikoki erabaki nahi dugula aldarrikatzeko.